

Beti bezala, oilarraren kukurrukuarekin esnatu da Mirari. Eguzkiaren lehen argi printzak agertzearekin batera abestu ohi du oilarrak, edozein gailu elektronikoko baino fidagarriago. Gainera, ez da kargatzen ipini behar, bateria ez baitzaio inoiz amaitzen. Udaberria da eta dagoeneko nabari da egunak luzatzen ari direla: goizak lehenago hasten dira eta arratsaldeak beranduago amaitzen.

Goizeko 7ak inguru dira: ordu erdi barru hasi behar luke ibilgailu festak. Baina gaur igandea da, eta autoen joan-etorriek ez dute oilarren kantua estaliko. Izan ere, Mirariren Azkonobieta baserria ez dago larre berdez inguratuta, lantegiz baizik. Egungo enpresen lekuan, ordea, baserriak eta animaliak zeuden duela ez hainbeste denbora. Orain zebra-bideak dira errepidean animaliak ikusteko aukera bakarra.

Duela 10 urte hasi zen Udala industrialdearen proiektuarekin, eta pixkanaka-pixkanaka aurrera eramaten joan da, lehen baserri eta baso ziren inguruak fabrika bihurtuz. Hasieran jende gehiagok esan zion ezetz egitasmoari, baina orain bi baserri baina ez dute zutik irauten: Azkonobieta eta Etxegoiena. Etxegoienan bere ahizpa Josefina bizi izan da, duela 13 urtetatik alarguna. Baserria eta lur-sailak saldu eta beste nonbaitera bizitzera joateko erabakia hartu duen jendea ikusita, bi ahizpek ere askotan hitz egin dute gauza berdina egitearen inguruan, baina galdera batean kateatuta geratu ohi dira beti:

- Non egongo gaitun hemen baino hobeto?

Ezin izan diote galdera horri erantzun. Ezinbestean heriotzaren gaiarekin nahastu izan dute, eta biek argi erakutsi baserrian eman nahi dituztela euren azken egunak. Baita hala izan ere.

Zoritarrez, Josefinaren osasun egoerak okerrera egin zuen azken hilabeteetan, eta pneumonia batek eramane du aste honetan. Hiru alaba- seme utzi ditu, Mirariren ilobak: Leire, Iñigo eta Libe. Hirurak daude ezkonduak eta hirian bizi dira euren familiekin, baina oso harreman estua mantendu dute ama eta izebarekin. Urteak daramatzate igandero familia hirian utzi eta Etxegoienan bazkaltzeko elkartzen, Josefina eta Mirarirekin batera. Josefinaren egoera zela eta, bien artean prestatzen zuten bazkaria Mirarik bakarrik prestatu izan du azkenaldian.

Orain, ordea, Josefinaren nahiak beteta, gauzak aldatu egin daitezkeela dirudi. Hasteko, baserriz aldatu dira: gaur estreinakoz Azkonobietan elkartuko dira bazkaltzeko. Erabaki horrekin ezin da gauza askorik ondorioztatu, baina Mirarik jakin badaki ahizparen heriotzak orain arte ezkutuan zegoen gai bat agerian uzten duela: zer egingo dute ilobek Etxegoienarekin? Ez dirudi ilobetako inor baserrian bizitzen jartzeko prest dagoenik: zutik geratuko den azken baserria izango al da

Azkonobieta?

Konturatu orduko joan zaio goiza Mirariri, baserriaren egunerokoak harrapatuta. Izan ere, nahiz eta gaur jaieguna izan, baserrian ez dago jaiegunik: beti dago zerbait egiteko. Eskerrak bazkaria bezperan egina utzi zuen! Asteazkeneko azokan erositako babarrunak dira gaurko menua, sakramentu guztiekin, jakina. Postrea iloben esku egoten da, astero batek ekartzen du eta aste honetan Iñigori tokatzen zaio.

Lehena iristen Libe izan da, hiruretan gazteena. Kazetaria da, eta beti du kontu interesgarriren bat kontatzeko. Leire eta Iñigo bata bestearengandik oso hurbil bizi direnez, auto berean etorri ohi dira. Suhiltzailea da Leire, eta liburu-denda bat du Iñigok. Ilobak dira, baina elkarrekin ordu asko igarotakoak, eta bere haurrak balira bezala maite eta ezagutzen ditu Mirarik.

Etxegoienan elkartzera ohituta, lehen uneak arraro samarrak izan dira denentzat, baina behin mahaian eseri eta jaten hasterakoan giro onean joan da bazkaria. Postrearekin batera atera da gaia, baina ez dago postrerik Mirarik entzundakoak utzitako aho zapore garratza gozatuko duenik. Leirek ekin dio, Josefinaren alaba zaharrenak:

- Izeba, ez da erabaki erraza, baina gure artean hitz egin dugu eta uste dugu onena Etxegoiena saltzea izango dela.
- Guk ez diogu erabilpenik emango, eta iruditzen zaigu denborarekin zahartzea baino hobe dela orain prezio hobe bat lortzea –jarraitu dio Libek.
- Hala eta guztiz ere, zer pentsatzen duzun jakin nahi dugu, eta, orain ama hil dela, zuk ere Azkonobieta saldu nahi izanez gero, lagunduko dizugu –amaitu du Iñigok.

Mirari pentsakor geratu da. Industrialdea eraikitzen hasi zirenean, baserritar guztiek jaso zuten bertatik joateko eskaintza. Batzuek, Mirarik eta Josefinak barne, ezetz erantzun zioten eskaintza horri. Hala ere, jendearen iritziak aldatzen joan ziren, eta baserria saldu nahi zutela adierazi bezain pronto ailegatu zitzaaien eskaintza berri bat. Ez dirudi, beraz, baserriak saltzea asko kostako denik. Mirarik isiltasuna hautsi du:

- Etorri nirekin, mesedez.

Mirariren familian 8 ziren, gurasoak eta sei alaba- seme, tartean Josefina eta bera, gazteenak. Garai

batean bizitzaz beterik zeuden gelak husten joan dira Azkonobieta baserrian. Eskailerak igo eta pasilloaren amaieran dagoen gelara eraman ditu Mirarik.

- Ba al dakizue norena zunan logela hau? –galdetu die Mirarik.
- Jakingo ez dugu ba! Amona-aitonen gela –harritu da Iñigo.
- Oso ondo, eta hori zer dun? –galdetu du Mirarik, leihotik etxearen kanpoaldera begiratzuz.
- Hori? Hori baratza eta ondoan oilategia! –erantzun du oraingoan Libek, galderak berak harritu izan balio bezala.
- Bai. Eta hemen goian, zer zagon? –Mirarik, behatzarekin gora seinalatuz.
- Ganbara. Nora heldu nahi duzu, izeba? –galdetu dio Iñigok.
- Bai horixe –eta bere gurasoak zirenen gelatik irten eta albokoan sartu da Mirari–. Eta orain, non nagon? –jarraitu du, Iñigoren galderari entzungor eginez.
- Hau zure gela da –Libek.

Azken galdera eginda, bere ohean eseri eta halaxe esan die izeba Mirarik bere hiru ilobei:

- Begira, bazekinat azken urteetan gauzak asko aldatu ditunala. Baserririk ez den geratzen eta enpresek erabat aldatu dituen ingurua, baina hemen nire bizitza osoa zagon. Amona-aitonen gela? Bai, baina zuon ama eta izeba-osaba guztiak ere bertan jaio gintunan. Eta etxearen kanpoaldea? Nire haurtzaroa bertan pasa ninan jolasean, eta orain ere egunero egiten dinat zereginen bat. Sasoia mantentzen laguntzen zidan! Eta ai... zenbat muxu emango ote nizkinan nik ganbaran, lehenengoa bai behintzat! Beraz, hauxe da pentsatzen dinadana: egin nahi duzuen Etxegoienarekin, baina ez, nik ez dinat inondik inora Azkonobieta salduko. Baserri hau nire etxea baino gehiago den niretzat: nire bizitza. Hemen dizkinat nire oroitzapen guztiak. Alboko gelan jaio nindunan, eta gela honetan hil nahi dinat. Gela batetik bestera ez den tarte asko egongo, baina tarte hori naun ni. Bi gela hauen arteko distantzian zagon nire bizitza. Non egongo naun hemen baino hobeto?